



ABORTURAKO ESKUBIDEA HOGEITA HIRU URTE GEROAGO

XX. mendeko mugimendu feministari oinarritzeko iruditu zitzaion abortatzeko eskubidearen alde borroka egitea. Alabaina, Elizako buruzagiek eta abortuaren kontrako taldeek zalantzan jarri dute esparru horri lotuta Estatu espainolean egin diren aurrerapenak. Bien bitartean, abortuen konpurua gora doa, gazteen artean batik bat, prebentzio neurrien eta sexu heziketa egoki baten faltaren ondorioz.

Helena Bengoetxea

Espainiako legeak abortua arautu zutenetik hogeitaz gora igaro dira, baina haren legezkotasunaren inguruko eztabaidak pil-pillean dira berriz, hauteskundeak izateko gutxi falta denean. Iragan azaroan Bartzelonan zenbait haurdunaldi nahita eten zituztela-eta Morin doktorea zein bere kolaboratzaileak atxilotu zituztenetik, hainbat erietxeri eraso egin diete abortuaren aurka diren zenbait taldek. Bien bitartean, mugimendu feministak gai horren inguruan orain arte agertu duen jarrerari eusten dio.

1985etik indarrean den Kode Penalak abortua delitutzat jotzen du, baina badira hiru egoera zeinetan ez den zigorrik aplikatzen: bortxaketa baten ondorio denean haurdunaldia, umekiak gaitz larriak dituenen, eta haurdunaldiak amaren osasuna arriskuan jar dezakenean. Salbuespen horiek direla medio, abortuaren legezkotasuna legearen beraren interpretazioaren arabera izaten da. Baina horrek nahasmena besterik ez du eragiten, gehienetan epaileak eta medikuak ez direlako ados jartzen, eta emaku-

meari egokitzen zaio sistemaren hutsak ordaintzea.

Abortuaren inguruko zalapartak bultzatuta, Espainiako gobernuak txosten luze bat argitaratu zuen urte hasieran, Estatuako 135 erietxe baimenduk (haietarik hamahiru Euskadin daude) 2006ko jarduerari buruz emandako datuekin. Horien arabera, azken urtean nahita eten diren haurdunaldien kopuruak (ehun mila baino gehiago estatu mailan) duela hamar urte jazotakoan halako bi adierazten du, eta kopuruak ez dio gora egiteari uzten. Bestetik, abortuetatik % 40 emakume gazteei praktikatu zitzairen, eta ataka horretan behin baino gehiagotan izan diren emakume kopuruak (%31 2006an) hirukoiztu egin da 1994tik hona.

Familia-Plangintzaren Elkarte Federazioaren arabera, "nahita etendako haurdunaldien sistemaren eta legearen beraren porrota begibistikoa da sexu heziketa eta prebentzio neurriei dagokienez. Gaur egun, orain dela hogeitaz gora baino ohikoagoa da harreman sexualak izatea, eta emakumeek argi dute euren esku dagoela

Osasun Publikoan abortu kasu larriak besterik ez dituzte onartzen, eta gainerakoak eritetxe pribatuetara bideratzen dituzte.

Haietatik % 7k bakarrik dute Osakidetzaaren diru laguntza.

abortatzea ala ez. Bestalde, abortuaren kontrako kanpainak ez dute, prebentzio neurriei begira, kontua errazten. Izan ere, talde hauek sexu heziketa ere arbuia-tzen dute, baina horrek ez ditu sexu harremanak galaraziko. Beraz, prebentzioa da nahita etendako haurdunaldien kopurua murrizteko tresnarik egokiena”.

Azpimarratzekoa da abortu gehienak (% 97 guztira) amaren osasun arazoetara lotuta egon zirela. Paradoxikoki, datu horretan oinarritzen dira abortuaren kontrako taldeak legea ezbaian jartzeko orduan. Beren ustez, legeak iruzurra ahalbidetzen du edozein emakumeri abortatzeko aukera eskaintzen baitio eta, ondorioz, aurrerantzean abortu kasuak ugartuko dira. Baina datuek ez dute horrelakorik azaltzen: legeak ezarritako epea (abortua haurdunaldiko lehen hamalau asteetan praktikatu beharra dago) gaur egun praktikatzen diren abortuetatik % 90ek beteko lukete.

Bestetik, Osasun Publikoan nahiko modu mugatuan aplikatzen ari dira abortuaren legea. Kasu larriak baino ez dituzte onartzen, eta medikuek kontzientzia eragozpena azaltzekotan erietxe pribatuetara bideratzen dituzte emakumezkoak. Ildo horretan, abortuetatik % 2,5 Osasun Publikoak egiten ditu, hasieran baino gutxiago. Euskal Autonomia

tan emakumeak ordaindu behar izaten du abortatzeak dakarren kostua.

Haurdunaldirik eten aurretik, erietxe pribatuek Osasun Ministeritzaren baimena jaso behar dute. Gaur egun, Estatuko 50 kliniketan da haurdunaldia nahi-

tzen ez ziren kontuak) salatzeke. 2007an zentro hauetan egindako inspektzio kopuruak gora egin zuen Madrilen; aurreko urtean bi egin zituzten eta iaiz, berriz, sei. Madrilo Osasun Sailak argudiatu zuen erietxe horien kontrako 208 salaketa jaso zituela, haietako batzuk posta elektronikoz, eta den-denak aintzat hartu zituen. Hortik dator erietxeen eta hango langileen kontra egitearena.

Maria Teresa Fernandez de la Vega Espainiako gobernuko lehendakari ordeak erasoak salatu bazituen ere, ez zuen legea aldatzerik onartu. Aurreko hauteskundeetan ez bezala, oraingo kanpainian PSOEek ez du epe-sistemaren gaia bere programaren barruan sartuko, hauteskundeak irabaztekoan gizartean abortu legegaren inguruan eztabaida sakonagoa bultzatuko dutela esaten baitute. Ezker Batua, berriz, legegaren moldaketaren alde azaldu da hasieratik, eta horixe eskatu zuen Madrilo Kongresuan iragan abenduan. Mugimendu feminista iritsi berekoa da, iruditzen baitaio abortua ez dela delitua eskubidea baizik.

Ugalketa emakumeen eskubideen parte den aldetik, abortu legea aldatzea beharrezkoa da. Kontuan hartzeko da ere, haurdunaldi bat nahita eten nahi izanez gero osasun publikoak bere gain hartu beharko lukeela horren ardura. Dena den, premiazkoa da aztertzea zerk bihurtzen duen haurdunaldia ez desiragarri: sexu heziketa falta izaten da maiz arrazoia (eskolan ez da hura behar bezala eskaintzen), edo antisorgailuak lortzeko zailtasuna, edo familia-plangintza zentroen gabezia. Datuak argiak dira erabat: hogeitun biko baino gutxiago dituzten emakumeetatik % 67 ez da inoiz familia-plangintza zentro batean izan. F



Erkidegoan datuak nahiko antzekoak dira: Osakidetza haurdunaldiak nahita eteteke eskarrietatik % 7 baino ez zituen bete, eta haietarik % 94 amaren osasun egoera arriskuan zegoelako egin ziren. Ondorioz, kasurik gehiene-

ta etetea posible, eta haietarik 30 Haurdunaldiak Eteteke Akreditaturiko Erietxeen sarearen parte dira. Aipatu erakundea greban izan zen aste betez iragan urtarrean, arrazoirik gabeko inspektzioak eta erasoak (lehen gerta-

Premiazkoa da aztertzea zerk bihurtzen duen haurdunaldia ez desiragarri: sexu heziketa falta izaten da maiz arrazoia.